

bilbao **museoa**

BBKateak **González – Muñoz**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

González – Muñoz

6. aretoa

Eraikin zaharra


Lehen solairua

Burdina eta papera

Bi eskultura hauen presentzia solemneak erakusten du Julio Gonzálezen eta Aurèlia Muñozen obra abangoardistek, elkarren arteko mende Erdiko aldearekin, gutxienez interes bera, eta, agian, nostalgia bera zutela. Eskulturaren hirudimentsiokotasuna konkistatzeko interesa, kasu batean espaziora zabaltzen diren xaflen bidez, eta, bestean, beren arkitektura mihizatzen duten mihi finetan leunki eutsitako forma errektangularren bidez. Eta eskuekin lan egitearen nostalgia, metalaren zurruntasun tematia forjatu eta soldatzeko, edo paper zati baten zuntz xumea fabrikatu eta edertasunez tindatzeko.

1

Eraikin zaharra Lehen solairua



Julio González

1876-1942

XIX. mende amaierako Bartzelona modernistan hasi zuen artistak bere ibilbidea. Metalisteria artistikoko tailer bat zuen haren familiak han, eta bertan ikasi zituen forjaren eta galdaketaren teknikak; halaber, urregintzako piezak ere egin zituen. 1899an Parisen hartu zuen bizilekua, arte sorkuntza askean jarduteko asmoz, eta 1928ra arte margolaritza eta marrazketa landu zituen. Urte horietan egin zuen bakarkako lehen erakusketa, eta Parisko abangoardia gaztearen aretoetan parte hartu zuen, hala nola Salon des Indépendants eta Salon d'Automne aretoetan. Picassorekin eta Pablo Gargallo eskultorearekin izandako harremanak eskulturara eraman zuen, eta, eremu horretan, burdinazko lan guztiz berritzaileak osatu zituen 1930eko hamarkadatik aurrera.

Artista honen paper gaineko lanari buruz museoak duen bilduma zabalaren parte dira zirriborro hauek. Bilduma horretan aipagarriak dira nekazarien marrazkiak, emakumezkoen biluziak eta erretratuak, horiexek baitira artistaren errepertorio ikonografikoko gai ohikoenak. Kubismoaren eta abstrakzioaren arteko trantsizio garaiari dagozkio. Garai horretarako lortua zuen Gonzálezek sintesi formala, eta sintesi hori islatu zuen, gerora, besteak beste, areto honetan bertan ikusgai dagoen *“Hiru tolesak”* deituriko emakumea eskulturan.



Emakumea saskiarekin

1927-1930. Arkatza eta tinta txinatarra paperean


Viviane Griminger andrearen dohaintza 1999an



Emakumea bastoiarekin

c. 1930-1940. Tinta, ur-kolorea eta koloretako arkatza paperean

Viviane Grimminger andrearen dohaintza 1999an



Nekazarien estudioak

c. 1930-1931. Arkatza eta tinta txinatarra paperean


Viviane Griminger andrearen dohaintza 1999an



Nekazaria

1931. Arkatza eta tinta paperean

Viviane Grimminger andrearen dohaintza 1999an



Emakumea

Arkatza eta tinta paperean

Viviane Grimminger andrearen dohaintza 1999an



“Hiru tolesak” deituriko emakumea

c. 1931-1932. Burdina forjatua eta soldatua

Burdinaren forjaren teknikan oinarrituta, eskultura modernoaren funtsezko korrante bati ekin zion Gonzálezek 1930eko hamarkadan: mihiztaduran eta lerro, plano eta hutsuneen bidezko obren sorkuntzan oinarritu zen. Eskematismo formal handiko lanak dira oro har, eta lausoki abstraktuak (ez zion inoiz figurazioari uko egin); lan honetan, esaterako, izenburuak nabarmentzen du emakumearen gonaren hiru tolesetako metalaren soldadura eta manipulazio lana. Soinekoak gorputzaren silueta irudikatzen du, eta agerian uzten du anatomiaren parte bat; bolumena irudikatzeke, berriz, forma lau batzuen hiru dimentsioko jokoa baliatzen du.

Bizkaiko Foru Aldundiaren gordailua, BBVren dazioaren bitartez 1999an

Aurèlia Muñoz

1926-2011

Bartzelonako Arte Aplikatuen Eskolan eta Massana Eskolan trebatu zen. Bera izan zen 60ko eta 70eko hamarkadetan ehungintzako arteak berritu zituen nazioarteko mugimenduko artistarik aktiboenetako bat; arte horiek sorkuntza garaikideko bitarteko zirela aldarrikatzen zuen, hain zuzen ere, mugimendu horrek. Oihal estanpatuak egiten hasi zen, ondoren *patchworka* eta brodatuak ezagutu zituen, eta, azkenik, hiru dimentsioekin esperimentatu zuen; ehunezko eskulturak egin zituen emakumeek baliatu ohi zituzten prozedurekin, hala nola collagearekin edo makramearekin. Azken teknika horrekin, eta, besteak beste, jutea, sisala, kotoia edo nailona erabiliz, pieza garrantzitsuak egin zituen 1970eko hamarkadan. Ondoren, olanak edo kandelak sartu zituen bere lanetan, eta horiekin origami monumentalak sortu zituen; 1980ko hamarkadan papera erantsi zien.



Izenbururik gabea

1964. Akuarela eta tinta paperean

Marraskia funtsezko tresna izan zen Muñozen sormen prozesuan. Irudimen handiko mundu oniriko eta poetikoaren jabe zen Muñoz, eta sarritan egin zuen jauzi paperezko obratik ehungintza eta eskultura lanetara. Horrela, etengabe errepikatu ziren, hainbat formatu eta euskarritan, pertsonaia abstraktuak eta eszenatokiak, Paul Kleeren, errusiar konstruktibistaren eta lehen abangoardiako beste artista batzuen kutsuarekin.

1994an eskuratua



Eskultura kubista 13

1988. Eskuz egindako eta tindatutako papera

Ehunez egindako lanengatik bada ere bereziki ezaguna, papera izan zen Muñozen proiektuetako osagai materiko nagusia 1983. urteaz geroztik. Artistak eskuz egiten zituen bere paperak: lihoa eta kotoia erabiltzen zituen ore sortzeko oinarrizko material gisa, eta horri eransten zizkion nakar hautsa, mika edo lurrak, askotariko lodierak eta ehundurak lortzeko; ondoren, kolore biziz tindatzen zituen. Era horretakoa da lan hau, 1990ean museoan erakutsi zituen eraikuntza eta mugikari “kubisten” sailekoa. Elkarri itsatsitako kolore eta testura askotako plano eta kontraplanoek osatzen dute lana, makina mekaniko bizidunak iradokiz.

1990ean eskuratua

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.